

**ACUERDO POR EL QUE SE DESIGNAN CINCO
VOCALES EN LA JUNTA DE PATRONATO DE LA
FUNDACIÓN UNIVERSIDAD SOCIEDAD**

**ERABAKIA,
FUNDAZIOAREN
PATRONATU
BATZORDERAKO BOST KIDE IZENDATZEKO**

La FUNDACIÓN UNIVERSIDAD-SOCIEDAD, es una entidad de interés general para el desarrollo de la Sociedad y la Economía de Navarra, con patrimonio autónomo fundamentalmente, cuyo objetivo es ser impulso permanente y catalizador de la cooperación activa entre la Universidad Pública de Navarra y la sociedad.

La reciente aprobación de los nuevos Estatutos de la antedicha persona jurídica hace precisa la integración de sus órganos de gobierno de acuerdo con las prescripciones establecidas en los mismos. Entre estos órganos especial relevancia tiene la Junta de Patronato dado que según la norma estatutaria (artículo 10º) le corresponden las funciones de alto gobierno de la Fundación Universidad Sociedad.

La Junta de Patronato cuenta entre sus integrantes con 8 vocales denominados Patronos Electivos. El artículo 12º.II.a) de los Estatutos de la Fundación Universidad-Sociedad establece que cinco de esos 8 vocales serán designados por el Consejo de Gobierno de la Universidad Pública de Navarra a propuesta del Rector.

A fin de asegurar la representación referida en la Junta de Patronato de la Fundación Universidad-Sociedad, debe procederse a la preceptiva designación.

En su virtud, el Consejo de Gobierno, previa deliberación de sus miembros, en reunión de día 14 de diciembre de 2018, adopta el siguiente,

ACUERDO

Primero.- Designar como Patronos Electivos designados por el Consejo de Gobierno de la Universidad Pública de Navarra a las siguientes personas propuestas por el rector de la Universidad Pública de Navarra:

- Dña. Marisol Gómez Fernández
- D. Antonio López Martín
- D. Ricardo Goñi Lerános
- D. Ion Esandi Mateo
- Don Emilio Domínguez Irastorza

Segundo.- Comunicar el presente acuerdo a las personas designadas, al presidente del Consejo Social y a la directora-gerente de la Fundación Universidad-Sociedad.

UNIBERTSITATE-GIZARTE FUNDAZIOA interes orokorreko entitate bat da, Nafarroako gizartea eta ekonomia garatzeko sortua, gehienbat ondare autonomoa duena, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta gizartearen arteko lankidetzak aktiboaren bultzatzaile iraunkorra eta katalizatzailea izateko helburua duena.

Arestian aipatutako pertsona juridikoaren estatutu berriak berriki onetsi direnez, beharrezkoa da haren gobernu-organoak estatutuetan ezarritako aginduei jarraikiz osatzea. Organo horien artean, Patronatu Batzordeak garrantzi berezia du, estatutuen arabera, 10. artikuluari jarraikiz alegia, hari baitagozkio Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren gobernu gorenaren eginkizunak.

Patronatu Batzordeak, bere kideen artean, kide hautagai izeneko 8 pertsona ditu. Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren Estatutuen 12.II.a) artikulua ezartzen duenez, 8 kide horietako 5 Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak izendatuko ditu, errektoreak proposamena egin eta gero.

Unibertsitate-Gizarte Fundazioaren Patronatu Batzordean aipatu ordezkariak ziurtatzearen, behar den izendapena egin beharra dago.

Hori dela-eta, bere kideek aurretik eztabaidatu eta gero, honako hau da Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 14an egindako bileran hartu duen

ERABAKIA

Lehenbizikoa.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak proposaturik, honakook izendatzea patronaturako kide hautagai, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluaren izenean aritzeko:

- Marisol Gómez Fernández andrea.
- Antonio López Martín jauna.
- Ricardo Goñi Lerános jauna.
- Ion Esandi Mateo jauna.
- Emilio Domínguez Irastorza jauna.

Bigarrena.- Erabaki hau izendatutakoei, Gizarte Kontseiluko buruari eta Unibertsitate-Gizarte Fundazioko zuzendari kudeatzaileari aditzera ematea.

pe

Tercero.- A tenor de lo establecido en el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 6/2001 de Universidades y en el artículo 144.1 de los Estatutos de la Universidad, el presente acuerdo agota la vía administrativa, contra el mismo podrán los interesados interponer potestativamente recurso de reposición, ante el Consejo de Gobierno, en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso administrativo ante los Juzgados de dicho orden jurisdiccional del Tribunal Superior de Justicia de Navarra; contados ambos recursos desde el día siguiente al de su publicación en la página web de la Universidad

Hirugarrena.- Unibertsitateei buruzko 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 6.4 artikulua eta Unibertsitatearen Estatutuen 144.1 artikulua ezarritakoaren arabera, interesdunek zilegi dute erabaki honen aurka, aukeran, berraztertzeko errekurtsua jartzea Gobernu Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien epaitegietan, zuzenean. Bi errekurtsuotarako epeak erabaki hau Unibertsitatearen webgunean argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuko dira.

EL PRESIDENTE / KONTSEILUBURUA



Alfonso Carlosena
Rector/Errektorea



upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa